



Maite Amenabar Zizurkilgo alkateordea eta Ainhoa Larrea Kultura teknikaria, aurkezpen ekitaldian, Intxaur frontoian. J.M.

Zizurkilen kirola eta kultura uztartuko dituzte hurrengo bi aste hauetan

Bihartik igandera bitartean kirol astea izango dute eta etzi 'Hamabi orduz kirolean' ekimenaren barruan XXI. Gau Krosa egingo dute. Astelehenean abiatuko da Liburuaren Astea. // 2

«Aitzindaria izan zen hezkuntza elebidunaren aldeko teorizazioan»

ONINTZA ODRIOSOLA IRIZAR
EHU-KO IRAKASLEA

Olentzerotan Jakin Minez egitasmoaren barruan hitzaldia emango du gaur, Altzon, euskal pedagogiari, Aita Migel Altzok egindako ekarpenen inguruan // 4

Goya sarietarako izendapen gehien jaso ditu 'Handia'-k, hamahiru guztira

Pelikula onenaren, zuzendari onenaren, jatorrizko gidoi onenaren eta jatorrizko musika onenaren sariak eskura ditzake, besteak beste, Altzoko Handiari buruzko filmak // 4

Epaileak ezinbesteko figurak dira kirolean, baita pilotan ere

Egoitz Jauregi pilota epaile anoetarrak profesioaren nondik norakoez mintzatu da; lana errazteko teknologia sartzearen hautua mahai gainean jarrita dago // 6-7

Orexako Ostaturia igandetik aurrera egongo da zabalik

Orexa Bizirik proiektuaren muina da Ostaturia; taberna hutsa baino gehiago da eta aurki zabalduko badute ere, udaberrirako «borobilduko» dute // 5

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

EH BERTSOLARI TXAPELKETA 2017 FINALA

Abenduak 17, Igandea
11:00 • Bilbo, BECen.

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

AZKEN ITZULIA ANTZEZLANA

Abenduak 15, ostirala
20:30 • Tolosa, Leidor aretoan.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus

Kirol jarduerak egitera bultzatu nahi dute jendea Zizurkilen

Zizurkilen bihartik igandera bitartean kirolarekin loturiko hainbat ekimen egingo dituzte eta horien artean dago etzi egingo duten XXI. Gau Krosa

Jon Miranda Zizurkil

Zizurkilgo kirol astearen aurkezpena baliatu dute herriko ordezkariak emakumeak kirola egitera animatzeko. Ainhua Larrea Kultura teknikariak gogoratu duenez, Aitziber Ibarbiak gidatuta emakume talde bat ateratzen da korri egitera ostiralero. Otaño ikastetxean biltzen dira eta dagoeneko talde bat osatu den arren, emakume gehiago animatu nahi dituzte.

Hain zuzen, bihar, neska futbolarien entrenamendu berezia zuzenduko du Aintzane Encinas Realeko jokalaria ohiak Danena futbol zelaian. «Danena futbol elkartek neskez osatutako bi talde ditu, eta haietazako eta futbola gustatzen zaien gainerako herriko neska guztientzako zabalik dago entrenamendua», esan du Larreak.

HAMABI ORDUZ KIROLEAN

Kirol jardueran elikadurak «sekulako garrantzia» duela iritziz dio Maite Amenabar Zizurkilgo alkateordeak. Horregatik larunbatean, hitzaldi-tailer bat antolatu dute Aitor Ugalde nutrizionista eta Javi Rivero sukaldarien eskutik.

Atxulondo kultur etxean eskainiko duten tailerrarekin batera, larunbatean ere beste hainbat ekimen egingo dira. *Hamabi orduz kirolean* izenarekin egun osoko jarduerak antolatu dituzte. Gauean izango da nagusia, XXI. aldiz antolatu duten Gau Krosa. Haurrak izango dira ate-

ratzen aurrenak. 2005etik aurrera jaiotakoek hartuko dute parte eta kilometro bateko distantzia korritu beharko dute, 850 metro kontrolatua eta 150 metro libre. 2002 eta 2004 urteen artean jaiotakoek 2,5 kilometro egin beharko dituzte eta 2001ean edo aurretik jaiotakoek 7 kilometro.

Haurrek ikastetxeetan banatutako eskuorrien bidez edo egunean bertan eman ahalko dute izena. Helduek, berriz, aurrez eman dezakete izena www.herrikrosa.eus helbidean hiru euro ordainduta. Egunean bertan ere izango da horretarako aukera, 21:00etatik aurrera, Joxe Arregi plazan. Kasu horretan bost euro ordaindu beharko dira. Gehieenez, 250 korrikalari onartuko dituzte.

Parte hartzaileen artean sariak banatuko dituzte. Helduen eta gazteen kategorian lehenengok, bigarrenak eta hirugarrenak izango dituzte sariak. Haurren lasterketan parte hartzen duten guztiek izango dute beren oparia eta afariak eta materiala ere zozkatuko dituzte. Korrikalari helduenarentzat *Dinosaurio Saria* banatuko da eta 22 minutu eta segundo batean jarrita dagoen errekorra hausten duenak sari berezi bat eramango du.

Ziotza elkartek antolatu eta udalak laguntzen duen VII. Pilota txapelketaren finalak, berriz, Intxaur frontoian igandean egingo dituzte 10:00etatik aurrera. Benjaminetan, Izagirre-Alberdi, Gaztañaga-Berozen aurka ariko dira; Alebinetan Babarro-



Amenabar alkateordea eta Larrea kultura teknikaria aurkezpen ekitaldian. J.M.

Ibarluzea, Otaegi-Zarrabeitiaren aurka; Infantilen mailan, oster, Zubizarreta-Mikelarenak, Amundarain-Iztueta bikotea izango du aurkari eta bukatzeko, kadeteen mailan, Amiano-Balla-

rena eta De la Fuente-Labakaren arteko norgehiagoka ikusi ahal izango da. Sariak banatu eta horrekin amaituko dituzte aurrengo kirol asteko ekimenak Zizurkilen.

KIROL ASTEA 2017

Abenduak 15, ostirala

16:00. Neska futbolarien entrenamendu berezia Aintzane Encinas Realeko jokalaria ohiaren eskutik. 2004 eta 2006 urteen artean jaiotako neska guztiei irekia.

Abenduak 16, larunbata

19:00. Atxulondo kultur etxean kirolarientzat elikaduraren inguruko hitzaldi-tailerra. Aitor Ugalde nutrizionista eta Javi Rivero sukaldariaren eskutik.

Hamabi orduz kirolean

11:00. Haurrentzat kirol eta jokoak

Intxaur frontoian eta ondoren hamaiketako eta opari banaketa.

16:00 - 18:00. Umeentzako joko desberdinak izango dira Intxaur frontoian.

18:00. Zumbatoia Intxaur frontoian.

22:00. Haurren Gau Krosa. 2004tik aurrera jaiotakoak.

22:30. Zizurkilgo XXI. Gau Krosa egingo da.

Abenduak 17, igandea

09:30. Ziotza pilota eskolak antolatu, Intxaur frontoian Zizurkilgo VI. Pilota txapelketako finalak.

Liburuaren inguruko ekitaldiak hurrengo astean

J.M. Zizurkil

Urtero bezala Liburuaren Astea antolatu dute Zizurkilen abenduaren 19tik 27ra. Ekitaldiak aurkeztu zituzten atzoko prentsa agerraldian:

LIBURUAREN ASTEA 2017

Abenduak 19, asteartea

17:30. Mozoloaren bidea ipuin kontaketa saioa Dobera elkartearen eskutik Plazida Otaño liburutegian.

Abenduak 20, asteazkena

17:30. Iriarte kultur etxean Ixabel Milleten eskutik gabonetako ipuinak.

19:30. Mari Karmen Basterretxeak *Matrilinealismoa Euskal Herrian* hitzaldia eskainiko du Plazida Otaño liburutegian.

Abenduak 22, ostirala

17:30. Teodoro Hernandoren XVI. Ipuin lehiaketa eta Plazida Otaño I. Booktrailer lehiaketako sari banaketa Plazida Otaño liburutegiko gela balioaniztean.

Abenduak 27, asteazkena

Zehazteke. Montesoriren botila sentzorialen tailerra helduentzat Plazida Otaño liburutegian eta haurrentzat eskulan tailerra izango da aldameneko aretoan.

Abenduak 28, osteguna

17:00. Ipuinen mundua familian ekimena. Ipuina eta bertsoa uztartuko dituzte hilabete honetan Plazida Otaño liburutegian. San Millan, Predro Mari Otaño eta Pello Errotako umeek ipuinak bertsoan abestuko dituzte eta bat batean Amaia Agirre, Oihana Iguaran, Haritz Mujika eta Unai Mendizabal ariko dira.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Gidaria. Esperientziadun kamioi gidaria behar dugu. C+E gidabaimeak eta CAP-a duena. Euskaraz jakitea baloratuko da. Interesa duenak deitu 603 77 02 24 zenbakira.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Bihar 'Zuretzat' arreta zerbitzuaren inaugurazioa ekitaldia

AMASA-VILLABONA // Herritarrek administrazioarekin dituzten izapideak errazteko bulego izango da *Zuretzat* herritarren arreta zerbitzua. Inaugurazioa, bihar, 12:30ean izango da eta bertaratu ezin duten herritarrentzat, jardunaldi irekiak antolatu dituzte, bihar, 16:00etatik 18:00etara eta larunbatean, 10:00etatik 12:00etara. Bulegoa astelehenean zabalduko dute.

Bernardo Atxagaren hitzaldia, bihar, Ur mara museoa

ALKIZA // *Paisaiak* hitzaldia emango du Asteasuko idazleak bihar 19:00etan Alkizako museoan. Museoak berak eta EHUKo Mikel Laboa Katedrak antolatu dute, aurren, hirugarrenez Arthitz ekimena, diziplina ezberdinak elkartzen dituen proposamena. Urrian lamien inguruko ekitaldi ezberdinak egin zituzten, eta orain, egitarauaren barruan sartu dute hitzaldia.



100 langile batu dira Asuncioneko lanuztera

Lau orduz etenaldia egin zuten, atzo, klinikako 100 langile inguruk; deitzaileak «pozik» daude

Izteia Urkizu Arsuaga

Tolosako Asuncion klinikako langileek atzo egin zuten, iragarritako lanuzteen zerrendan lehena. 100 langile batu ziren mobilizaziora, eta deitzaileak «gustura» azaldu ziren. Lau orduko lanuztea eta auto-karabana egin zituzten goizean, eta klinikako sarreran elkartu ziren, berriro, arratsalde hasieran.

Goizez zein arratsalde klinikako sarreran heldu zioten pankartari, soldata igoera eta baldintza duinak eskatzeko. Goizean, gainera, eraikinari buelta eman zioten, eta auto-karabana zaratsua ere egin zuten, Tolosan barrena: «100 pertsona elkartu gara, kontuan izanda, gutxieneko zerbitzuak eskaini behar ditu-

gula. Jarraipena oso ona dela uste dugu».

Besteak beste, Asuncioneko langileek kolpea eman dute mahai gainean, soldatei KPIaren igoera aplikatzeko zazpi urteko borroka fruiturik eman ez delako. Hain zuzen horixe azaltzen aritu ziren, atzo, klinikara berta-

ratzen ziren herritarrei. Atzoko lanuztearen ondotik mobilizazio gehiago helduko dira.

Hilaren 20an, egun osoko lanuztea deitu dute, eta hilaren 27an auto-karabana egingo dute 18:00etatik 19:00etara. Azkenik, urtarrilaren 8rako eta 9rako bi eguneko lanuztea iragarri dute.



Hilaren 20an egingo dute hurrengo lanuztea, egun osoz. I. URKIZU

Udalak zabaldu egingo du doako wifi sarea

Zazpi eraikinetan erabil daiteke, egunean zortzi orduz; 512Kb-eko abiadura du konexioak

I. Urkizu

Tolosako eraikin publiko esanguratsuenetan doako wifi zerbitzua abiarazi zuen, udalak, joan den uztailan. Orduz geroztik, udal txean, liburategietan, kultur etxean, Pablo Gorosabel eraikinean, Abastos eraikinean eta Usabal kiroldegian sarera doan konektatzeko aukera dute herritarrek, izen-emate sisteman erregistratu eta gero. Horrela, doako wifi zerbitzuaren bigarren fasea esku artean du, jada, Tolosako Udalak: 2018an, Oriaburu eraikinean, Usabal kiroldegiko barrualdean, Beraubiko kirol instalakuntzetan, Trianguloa plazan, Leidor aretoan nahiz Emeterio Arreseko lokal soziokulturaletan ere gozatu ahal izango da zerbitzuaz.

Udalek doan eskaintzen dituzten wifi zerbitzuetan ohikoa den bezala, izen-emate sistema bat pasatu behar da, lehenik, sarean nabigatu ahal izateko: mugikor, ordenagailu nahiz tabletaren bitartez, euskarrian telefono zenbakia eta helbide elektronikoa sartu behar dira. Horrela, sistemak Tolosako Udalaren webgunera bideratuko du erabiltzailea, gakorik sartu beharrik gabe.

Harago joan nahi duenak, aldiz,

datu gehiago erregistratu beharko ditu sistemak: izen-abizenak, NAN zenbakia eta mugikor zenbakia. Behin informazio hori txeratatuta, sistemak kode bat bidaliko dio erabiltzaileari, SMS mezu bidez. Une horretatik aurrera, erabiltzaileak doako wifia duten eraikin guztietan baliatu ahal izango du konexioa.

SARERATUAK HAZTEN

Udaz geroztik hazten joan da Tolosako Udalaren wifi sareko erabiltzaile kopurua: 1.500 erabiltzaile finko eskuratu ditu, eta 5.000 konexio inguru izan dira bost hila-beteotan. Horrela, hilabetez hila-bete hazi da sareratuaren kopurua: 879 izan ziren abuztuan, 1.202 irailan eta 1.313 urrian.

Batezbeste, 113 minutuko konexioak izaten dira Tolosako Udalaren wifi sarera egindakoak, eta Aranburu jauregiko udal liburategia, Antonio Maria Labaien kultur etxea eta Pablo Gorosabel eraikina dira konexioa gehien erabiltzen duten eraikinak. Aipatzekoa da, hala ere, egunean zortzi orduz nabiga daitekeela, 512Kb-eko abiaduran.

Tolosako Udalarekin batera, Gipuzkoako beste 9 herritan ere sistema bera jarri dute martxan. Horrela, Tolosan izena emana duten herritarrek, erabili ahal izango dituzte Zumarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Errenteria, Aretxabaleta, Arrasate, Pasaia eta Urnietako doako wifi sareak ere.



Laugarren ikasturtez, Mugi Tolosa egitasmoak asteazken goizak hartzen ditu, hirugarren adineko herritarrak ibiltzera bultzatzeko. Aurten, estrainekez, horma-egutegia argitaratu du udalak, Mugi Tolosako argazkiekin. Atzo banatu zieten. I. URKIZU

Hilberriak eta urteurrenak

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Manuel Padrao Afonso

Herenegun hil zen 60 urte zituela

*Lurra maite duena lurreko hobira
itzultzen da berriro, egia hori da.
Malkoak orbeletan isuriko dira,
asko eraman dezu zoazen tokira,
atseden hartuzazu usoei begira.*

Familiaren partez

13 izendapen jaso ditu 'Handia'-k Goya sarietarako



'Handia' filma egin duen taldea. ATARIA

Erredakzioa Altzo

Hamahiru kategoriatan izendatu dute Aitor Arregi eta Jon Garañoren *Handia* pelikula Goya sarietarako: pelikula onenarena, zuzendari onenarena (Arregi eta Garaño), jatorrizko gidoi onenarena (Arregi, Andoni de Carlos, Garaño eta Jose Mari Goenaga), jatorrizko musika onenarena (Pascal Gaigne), aktore berri onenarena (Eneko Sagardoi), produkzio zuzendaritza onena (Ander Sistiaga), argazki zuzendaritza onena (Javier Agirre Erauso), muntaketa onena (Laurent Dufreche eta Raul Lopez), zuzendaritza artistiko onenarena (Mikel Serrano), jantzi diseinu onena (Saioa Lara), makillaje onena (Ainhua Eskisabel, Olga Cruz eta Gorka Agirre), soinu onena (Iñaki Diez eta Xanti Salvador) eta efektu berezi onena (Jon Serrano eta David Heras).

Joseba Usabiaga aktore tolosarrak TOLOSALDEKO ATARIA-rekin hitz egin zuen atzo Habanatik, bertako zinema jaialdian baitago *Handia* pelikula aurkezten. «Ur-duritasun puntu batekin ba-geunden pelikularen taldekoak,

pentsatuz izendapen batzuk jaso genitzakeela, baina uste dut inork ez zuela hamahiru izendapen izatea espero», esan zuen Usabiagak. «Oso pozik hartu dugu albistea». Aktore nagusirako proposatuta zegoen Usabiaga, baina ez da sartu izendapenetan: «Oso aktore handiak daude zerrendan, eta ezinezkoa zen. Baina oso kontentu nago, filmak jaso dituen izendapenen parte ere sentitzen naizelako». Orain gutxi Milanen izan da Usabiaga, bertako zinema jaialdian film onenaren saria jasotzeko eta handik joan da Habanara.

Goya sarietarako hautagaitza gehien jaso dituen pelikula da *Handia* (13), *Abracadabra* (12), *El Autor* (9) eta *Verano 1993* (8) pelikulen aurretik.

Bestalde, Juanba Berasategik zuzendutako *Nur eta Herensugearen Tenplua* filmak animaziozko film onenaren saria eskura dezake. Berasategik *Kalabaza tripontzia* pelikula egin zuen eta aurtengo Galtzakomik lehiaketan keinu egin diote film horri, Berasategi lehiaketa horretako epaimahaikidea izan delako behin baino gehiagotan.



BATISTE EZEIZA/ARGIA

«Irakaskuntza herri baten funtsezko zutarria zen Migel Altzorentzat»

ONINTZA ODRIUZOLA IRIZAR EHU-KO IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Imanol Garcia Landa Altzo

Olentzerotan Jakin Minez kultur egitasmoaren barruan, gaur hitzaldia emango du Onintza Odriozola Irizarrek (Donostia, 1980). EHUko irakaslea eta ikerlaria da Odriozola, Soziologian doktorea eta Historian lizentziatua, eta *Anizeto Olano 'Migel Altzo': euskal eskola, gerrak zapuztutako ametsa* hitzaldia emango du, 19:00etan, udaletxeko aretoan. Bere aita Joxe Manuelek, hau altzotarra, hitzaldian ere parte hartuko du arlo soziolinguistikoa azalduz.

Zein izan zen Anizeto Olano 'Migel Altzo'?

Anizeto Olano Galarraga, Aita Migel Altzo kaputxinoa, Altzo Azpiko Olazabal Zahar baserrian jaio zen 1896an. Ikasteko grina ikaragarria izan zuen, baita hori egiteko aukera ere: Filosofiako eta Teologiako ikasketak egin zituen lehendabizi, Zuzenbide Zibilean eta Filosofia eta Letretan lizentziatu zen gero eta, jarraian, Psikologian diplomatu zen. Zuzenbide Kanonikoan lizentziatu zen Erroman. Lekarozko eskolan aritu zen irakasle 1936ko altxamendu militarrean arte, eta urte haietan idatzi zituen filosofia, pedagogia eta euskal etnografiari buruzko bere lan asko. Euskal kulturgintzako elkarteetan eta aldizkarietan ere lan egin zuen, eta Eusko Ikaskuntzako kidea ere izan zen. Frankistengandik

Baionan eta Bordeleko Begles herrian babestu ondoren, Argentinara joan zen 1940an, eta 1965ean hil zen Buenos Airesen.

Lan bategin zenuen Migel Altzoren inguruan. Horri buruz ariko zara hitzaldian edo beste gaibatzuk ere jorratuko dituzu?

Lan horretan oinarrituko naiz Migel Altzok pedagogiaren eta hizkuntzaren arteko harremanen egin zituen ekarpenez hitz egiteko. Gero oinarri horretatik abiatuta, aitzak hainbat xehetasun hartuko ditu hizpide. Eta entzuleen galdera, zalantza eta hausnarketetatik abiatuta ere, hainbat gaitaz hitz egiteko aukera sortuko dela espero dut.

Ze ekarpen egin zituen Migel Altzok euskara eskola sisteman txertatzeko?

Hainbat jakintza arlori buruz idatzi zuen, hala nola, pedagogia, filosofia eta zuzenbideari buruz, baina bere obran euskal pedagogiaren barruan egin zuen lana nabarmentzen da. Zehatzago esateko, elebitasuna Euskal Herriko eskoletan txertatzearan inguruan egindako azterketa eta hausnarketa. Buruhauste eta kezka zientifikorik nagusia hori izan baitzuen: Euskal Herrian eta European gertatzen ari ziren hizkuntzen arteko borroka aztertu eta horiei irtenbidea ematea, etxeko eskoletan euskaren irakaskuntza sartzeko helburuz. Ekarpent teoriko horrez gain, euskal eskolen antolamen-

duan buru-belarri ibili ziren erakundeetan parte hartu zuen.

Zein ziren bere kezkek euskararekiko?

Esango nuke bere kezken erdigunean euskal kulturaren eta hizkuntzaren garapena, funtsean biziraupena, jarri zuela. Hezkuntza elebiduna oso modan ez zegoen garaian ama-hizkuntzaren garrantzi pedagogikoa frogatu ahal izatea zen bere kezka nagusienetako bat.

Eta ze garrantzia du Migel Altzoren lanak pedagogiaren alorrean?

Migel Altzok pedagogiaz argitaratu zituen lanetako ideiak lau multzo nagusitan sailka genitzake. Batetik, euskal arrazaren eta euskal nazioaren psikologiaren arteko lotura aldarrikatzen du; bere ustez, ezinbesteko lana da euskal haurrengan kontzientzia hori esnatzea, betiere, euskal nortasunak biziraun ahal izateko. Bestetik, euskal heziketa integral baten aldeko deia egiten du: ezinbestekoa baita hori haurrengan euskal sen horren kontzientzia berpizteko. Horixe bihurtu zen, neurri handi batean, Altzoren helburu nagusia, izan ere, euskal kulturak ordura arte bazterrean utzita zuen arloa zen irakaskuntzarena; bere ustez, herri baten funtsezko zutarria. Hirugarrenik, Europako hainbat eredu aztertu eta Euskal Herria ekartzen ahalegindu zen. Laugarren eta azken ildoak euskara irakasteko bitartekoekin lotuko genuke: baliabiderik egokienak zehazten eta baliabide horiei erabilera praktikoa ematen saiatu zen.

Euskal eskola martxan jartze-ko asmoa izan zuen, ezta?

Batetik, hezkuntza elebidunaren aldeko teorizazioan aitzindaria izan zen Migel Altzo Euskal Herrian, bide erakuslea. 1936ko altxamendu militarren aurreko testuinguruan elebitasunaren aldeko ahotsak handitzen ari zirenean, hainbat euskaltzale horren inguruko ekarpen teorikoak egiten hasi zen. Baina Altzoren ekarpenak badu berezitasunik: Hego Euskal Herrian esperimendatzen ari ziren euskal eskolen saiakera haiei European indarrean zeuden elebitasunaren inguruko teoriak eta metodoak ekarri izana. Hizkuntza minorizatu baten ikasketa legitimatzeko arrazoiak jendarteratu zituen aldizkarietan. Euskal munduko eragileak euskararen irakaspenaren balioez jabetu zitezen argudioak ematearekin batera, hori aurrera eramateko zein bide jorratu beharko ziratekeen adierazi zuen, Europako ereduaren oinarrituta.

2018ko
mahai egutegiak
eskuragarri.

Pasa zaitezte
hauen bila hilaren
18tik aurrera.

San Esteban, 20 Tolosa 20400



Maiatzean itxi zuten Orexako Ostaturia eta eraberritze lanak bukatuta herriko bikote batek hartu du berriz ere zabaltzeko ardura. Oresa Bizirik proiektuaren muina izango da aurrerantzean.

Herri ereduarekin bat

Rebeka Calvo Oresa

Duela bi urte inguru hasi ziren Oresa, herriaren etorkizuna marrazten duen proiektua garatzen. Oresa Bizirik proiektuak herria jasangarriago eta iraunkorrago egitea du helburu eta herritarrak erdigunean jartzen ditu, «harro gaudere Oresa bizitzeaz, asko dugu eskaintzeko eta eredu ere bagara zentzu askotan, hori erakutsi nahi dugu eta bide horretan Ostaturia berebiziko garrantzia du», esan du Eneko Maiotz alkatetza.

Jaiak bukatuta itxi zuten Ostaturia, maiatzean, eta orduetik erakina eraberritzen ari dira. Inaugurazioa larunbatean egingo dute, herritarrei begirakoa izango da, batik bat, eta garrantzitsua da oso, Oresa Bizirik proiektuaren muina baita. «Oresa Bizirik proiektuko zatirik ikusgarriena da. Denbora asko garamatza lanean. Gure erronka tabernaren eredu hori aldatzea eta herri eredu baten barruan txertatzea izan da. Filosofia guzti bat aldatzea da helburua eta lehen pausoa eman dugu», gaineratu du.

Eraikina berritu dute eta dezenteko obra egin dutela esan du alkateak. «Inbertsio handia izan da, baina beharrezkoa. Helburua eredu aldaketa hori ere islatzea izanik garrantzitsua da herriko Ostaturia».

Ostaturia aurrerantzean, «filo-

safia aldaketa» bat izango du hortaz, «Ostaturia bete beharreko funtzioez eztabaidatu genuen, eta harago joan behar zuela ikusi genuen».

Hori dela eta, ohiko taberna baten funtzioez gain, beste hainbat betebeharrak izango ditu: «Herriaren elkargune izatea, kanpotik etortzen direnentzat informazio eta harrera gunea izatea, eta baita denda txiki baten funtzioa betetzea ere».

Denda ere saltoki hutsa baino gehiago izango da, bertako produktuak izango baitira nagusi, bertako jarduerak ekonomikoak indartu eta bide batez, eredu propio horren alde eginaz. «Herriko produktuak sustatu eta salduko dira bertan eta, era berean, menuetan lehengai bezala erabiliko dira», esan du Maiotzek. «Gertuko produktuak sustatuko ditugu, aldi berean, gure baloreak kanpora atera ahal izateko. Oresa zerbait berezia eta herrikoa, propioa, eskaini behar die bai orexarrei eta baita kanpotarrei ere». «Oresa zer eskaini dezakeen erakutsi nahi dugu», gaineratu du.

OTORDUAK

Igandetik aurrera egongo da zabalik eta otorduak normaltasunez emango badituzte ere, udaberrira arte itxaron beharko da proiektua «borobiltzeko». «Proiektu guztia pixkana txertatuko dugu, saltokia ere udaberrirako izango dugu prest».

Lanean hasiak dira jada, hala ere. «Bertako produktuen lanke-



Larunbatean inauguratuko dute eraberritutako Ostaturia. ATARIA



Udaberrirako denda eta bertako produktuen menua txertatuko dituzte. ATARIA

tarekin hasita gaude, asmoa da udaberrirako bertako produktuen menu oso bat eman ahal izatea. Zentzu horretan probak egiten ari gara eta bertako ardi esnearekin egindako flana ere egin dute eta oso goxoa dago. Sorkuntza lan horretan ari gara».

Ostaturia Oresa etorkizuneko izango duen garrantziaz ohartuta, maizter egokiak bilatzen ari dira orain arte, eta «zortea» izan dutela dio Maiotzek. «Herriko bikote batek hartu du eta oso adierazgarria dela esango nuke, hau da, udalak jakin izan du transmititzen Ostaturia zein funtzio bete behar dituen eta hartzen duten udalaren babesa izango dutela uneoro». «Elkarlana planteatzen dugu eta herriko jendea apuntatu denerako hori transmititzen jakin dugula esan genezake», nabarmendu du.

INAUGURAZIOA

Larunbatean zabalduko dituzte lehen aldiz Ostaturia eraberritutako ateak, 20:00etan, eta herritarrek eraberritze lanak ikusi ahal izango dituzte. Ondoren, afaltzeko elkartuko dira bertan. «Etxeko aurkezpen bat izango da. Inaugurazioa bere osotasunean udaberrian egingo dugu. Proiektuaren %100a udaberrian egongo baita bukatuta».

Igandetik aurrera zabalik egongo da, berriz ere, Ostaturia filosofia eta helburu eraberrituekin. Astearte eta asteazkenetan hartuko dute atseden maizter berriek.

Desagertutako edukiontzien informazioa nahi dute

IBARRA // Merkatariek hondakinak biltzeko erabiltzen dituzten hainbat edukiontzi desagertu ziren asteartean eta larunbatean. Zehazki organikoa biltzeko hiru kubo, errefusaren bi eta papera zein kartoiaren bat desagertu dira. Udalak gaiaren inguruan zerbait dakienari edo edukiontziak nonbait topatu dituenari, beraiekin harremanetan jartzeko eskatu du.

Larunbatean eskuratu ahal izango da, zine ziklo berriko bonua

TOLOSA // Larunbat goizean, datorren hilabetearen Leidor aretoan eskainiko dituzten film guztiak ikusi ahal izateko zine bonua jarriko dute salgai, aretoko leihatilan bertan, 11:00etatik 13:00etara bitarte. Zikloak urtarilaren 19ra bitarte iraungo du. Eskainiko dituzten filmen artean daude *La higuera de los bastardos*, *El autor* eta *Richard zikoina* (haur zinema).

Gaixo dauden kideei elkartasuna, Sevillako espetxean

LIZARTZA // Sevilla II espetxean dauden euskal preso politikoei borrokaldia hasi zuten pasa den urriaren 30ean gaixo dauden euskal preso politikoen eta bereziki Ibon Iparragirrenen egoera salatzeko. Borrokaldia txandaka egiten ari dira eta oraingoan Lizartzako Garikoitz Etxeberriaren txanda da. *Ibon Etxera Bizirik* lelopean ari dira itxialdia eta baraualdia egiten.

Oargi elkartearen urteko azken irteera, Otsabiora

TOLOSA // Urteko azken irteera egingo du Oargi mendi elkarteak larunbatean. 09:00etan aterako dira Lizartzako udaletxetik eta Otsabio mendira igoko dira. Ordu t'erdiko igoera izango dela aurreikusiko dute eta ibilaldia egingo da Oargin bazkalduko dute. Izena emateko azken eguna da gaurkoa eta oargimendi@gmail.com-ra idatzita edo 688 69 86 42 telefono zenbakira deituta egin daiteke.

Mendaro-Lastur irteera antolatu du Alpino Uzturrek

TOLOSA // Alpino Uzturre mendi elkarteak Mendaro-Lastur irteera antolatu du iganderako. Bi ibilbide egongo dira aukeran; motza, 8 kilometro dituen Lastur-Deba eginez, edo 19,5 kilometroko Mendaro-Lastur ibilbide luzea. Ibilaldia eginda urteroko bazkaria egingo dute Lasturko jatetxean. Izena info@alpinouzturre.eus-en edo 943 65 27 89-ra deituta eman daiteke.



Altuna eta Urrutikoetxearen finalaren ondoren, eztabaidak eztabaida, mahaiko epaileek monitoreatzen izatearen beharraz hausnartu da, beste behin. ASIER IMAZ

Epailerik onenak pilotariak omen dira, haiek baitakite ondoen, pilotak zintzea jo duen, arrastoa gainditu duen, edo aurkariak bigarren punpan jaso duen. Epailerik gabe ordea pilota partidarik ez.

Esku-huskaren garaia heldu da

Iñigo Otaegi
Anoeta

Epaileak ezinbesteko figurak dira kirolean. Ordea, inguratzen gaituzten modalitate andanatan, teknologia epaileen jardunaren gainetik jartzen da; teniseari, besteak beste. Orain bi aste pasatxo jokatu zen lau t'erdiko finalean, jujeen lanak asaldura eragin zuen zaletuen artean. Horren haritik, askok egin duten teknologiaren premiaren aldarrikapenaz eta epailearen lanaz gogoeta egin du, Egoitz Jauregi (Anoeta, 1991) juje profesionalak.

SOFATIKERRAZA DA EPAILE IZATEN

Kintzerik eztabaidatuena, markagailua 18na zegoenean jazo zen. Urrutikoetxearen pilotakadak Altuna jo zuen, eta araudiak dioen gisan, jokaldia bertan behera utzi ordez, epaileek ez zuten ezer adierazi.

Egoitz Jauregi pilota epaileak argi dio, «abiadura horretan oso zaila da erabakiak hartzen, gainera, aurreko epailearen kokalekua ez zen batere aproposa, pilotaren norabide aldaketaz ohartzeko». Halere, onartzen du, pilota goitik beherako norabidean zihoala, eta buelta eman beharko litzatekeela.

Esatariek maiz, lau ikuspegi ezberdinetako irudiak behar izaten dituzte ondorio batera iriste-

ko. «Pentsa nolako trantzea den epaileontzat, behin soilik ikusitako eszena baten interpretazioaren berri ematea, atzetik zaletuak marmarka ditugula», azaldu du Jauregi, xehe-xehe.

Funtsean, epaile onenak pilotariak direla dio Jauregi, beraiek baitakite ondoen, pilotak zintzea jo duen, arrastoa gainditu duen, edo aurkariak bigarren punpan jaso duen.

PILOTARIEN ITZALEAN

Pilotalekuan izandako pasarte txarrez hausnartzen hasita, zerrendatxo bat osatu du anoetarrek. «Behartuta gaude oihu eta tankerakoak aditzera, baina, hanka denok sartzen dugu, eta epaileok hartzen ditugun erabakiak, asmo onez hartzen ditugu».

Inor gutxi jartzen da epailearen larruan, eta pilotarien portaera zentzu horretan, Jauregi dio «eskertzekoa» dela; beroaldiren bat edo beste salbu, polemika bigarren mailan uzten omen dute.

Pilotaririk gabe ez dago ikuskitunik, epailerik gabe ere ez, ordea. Kirol erregeetan, epaileak kritika onik gutxitan jasoko badu ere, ekonomikoki jasotzen duten ordaina askoz ere handiagoa da, esku pilotakoen aldean baino. Jauregiaren hitzen arabera, ekonomikoki epaile gisa inork

ezin du bizimodua atera. Gainera, ofizio ez dela kontuan hartuta, beste lanpostuarekin uztartzera derrigortuta daude, eta baldintzak zailak dira zinez. Asteburutan aisialdirako tarterik ez dute izaten, ostiral, larunbat eta igandetan izaten dituzte eta partidak. Profesionalen jaialdiei dagokienez, frontoira lehenago azaldu behar, eta etxeratzerako, iluntzeko 21:00ak. Jauregi dio «hor gaudenoi asko gustatzen zaigu pilota, eta gainerako faktoreek indarra galtzen dute».

Epaile onenak pilotariak dira, beraiek baitakite ondoen pilotaren ibilbidea zein izan den

Ekonomikoki epaile gisa inork ezin du bizimodua atera, beste lanpostuekin uztartetu behar dute



Egoitz Jauregi pilota profesionalen aritzen da epaile lanetan. IÑIGO OTAEGI



Trinketean «samurragoa» omen da «kintzea norentzat den igartzea». R. CALVO

TRINKETEAN ASMATZEA, ERRAZAGO

Anoetarra esku pilotan soilik ez, trinketean eta palan ere aritzen da inork gutxi nahi dituen zereginetan. Arrisku gehiago hartu arren, askozaz ere samurragoa omen da kintzea norentzako den igartzea. «Pilotariekin batera sartzen gara frontoian, eta mugimenduan gabilta uneoro, ahalik eta ikuspegi aproposena lortzeko asmoarekin», adierazi du Jauregik. Gainera, kontrakan txan egonda baino, bat gehiago sentitzen omen da bat trinketean; gozatua alde ederrekoa dela dio anoetarrak.

Esku pilotako profesionalen partiden estutasunak ere ez du gehiegi laguntzen. «Lan nekeza da, tentu handiz begiradarik apartatu gabe jardun behar duzu 22ra iritsi arte» azaldu du anoetarrak. Aldiz, gaztetxoek pilota norgehiagoketan edo beste modalitate batzuetan, patxadaz egiten omen da lan, partidaz gozatzeko paradarekin.

MONITOREA OTE SOLUZIO?

Lau t'erdiko txapelak amezketararen belarriak laztantzen ziotuen bitartean, batzuk haserreak eraginda edo, alternatibean gainera hausnartzeari ekin zioten. Dezenteko sona hartu du horietako batek, eta ez da oraingo kontua, aspadihotik dator. Teletatik set-etik metro gutxira dagoen mahaiko epaileak, monitorea bat izan dezan proposatzen da, aurreko juleak nahastuz gero, polemikak ekiditeko.

Gainera, esku-huskaren kasuan, erabakia berehalakoa izango litzateke, tenisaren edota saskibaloiaren antzeko. Epaile anoetarrak ez dauka dudarik, «epaileen erabakia errazteko eta hobetzeko balio baldin badu, teknologiak sartu beharra dauka pilotan». Horren kontra argudioa litzateke, pilotaren betiko filosofia zikintzearena; alabaina, Jauregiren iritziz, «hobe minutu batez partida eten, tantoa okerreko pilotariari eman baino».

Asteburuan ezagutuko dira finalerdien protagonistak

Antton Pebet txapelketako VI. edizioko faborito nagusiak Arrieta-Zezeaga eta Exposito-Telletxea dira

Iñaki Lizaso Amasa-Villabona

Faborito izateak ez du 22 tantora iristea bermatzen. Ongi dakite hori pilotariak. Ostiralean, 19:00etan hasita, final laurdenetako bi partida jokatu dira Villabonako Bear Zana pilotalekuan, eta bertan, erabakiko dira abenduaren 23ko finalerdietan jokatu dutenen izenak. Aurretik, Behar Zana talde antolatzaileko pilotari den Eñaut Aranburuk infantilak Gipuzkoako txapelketako ekialdeko final laurdenekoak jokatu ditu buruz buru eta lau t'erdik barruan, 18:15ean hasita.

Lehen partidari, hasierako hautaketan ez zeuden bi pilotarik jokatu dute, eta ez mailarik du telako. Pilotari on askoren artean egin behar da aipaturiko lehen hautaketa, eta zaila izaten da antolatzaileentzat lan hau. Aukera bikaina dute beraz, Ioritz Egiguren Tolosako aurrelari gazteak eta Markel Lizeaga hernaniar atzelari indartsuak. Bikote berria osatuko dute. Freskoa eta txispa bizikoa. Beraien aurkariak Arrieta hernaniarra eta Zezeaga bergararra izango dira, azken hau Zezeaga pilotari profesional ohiaren semea. Halako egurra, halako ezpala. Azken hauek, 22-8ko emaitzaz erraz irabazi zuten beraien final zortzireneko partida Zubiria eta Eskirozen aurka, atzean zein aurrean aurkariak baino gehiago izan baitziren.

Faborito gisa ageri dira Arrieta eta Zezeaga baina pilota borobila denez, eta partidak 22ra, edozer gerta liteke; Ioritz Egiguren joko puntu oso onean baitago eta bere maila erakusteko irrikan irtengo da Bear Zanak kantxara. Lizeaga berriz, eliteko partidak jokatze gogoa etorriko da. Partida irekia eta erakargarria.

Bigarren partida ez da nolana izango. Aurrean bi pilotari elektriko eta bizik jokatu dute.

Fase buru Exposito astigarragarra eta Telletxea Albizturkoa. Biek badakite zer den Antton Pebet oromenezkoan jokatzea. Eta nagusi mailan txapela irabaztea zer den ere bai. Telletxeak txapela etxera eramana du lehen ere, eta berriro irabaztera etorriko da. Laguntza ezin hobea izango du aurrean. Pilotari elektrikoak izango du lagun, aire joko ona eta indartsua duena. Pilota kantxa barruan sartzen badu, pilotari oso arriskutsua da Exposito. Telletxea bera, inguruan ezagutzen dute pilotazaleek. Ezker elegante eta bikaina du eta maila bikainean jarraitzen du azken hilabeteetan bezala.

Beraien aurkariak Prieto bizkaitarra eta Mariezkurrena II nafarra izango dira. Prietok, Eneko Labaka ordezkatuko du. Ez du aurrelari txarragoa izango Mariezkurrena gazteak. Zubizarreta bezalako izen handiko pilotariak irabazita dator Villabonara Prieto. Aurrelari azkarra da, aireko jokoa oso ongi menperatzen du eta tantoa azkar bukatzea gustuko du. Atzetik, Mariezkurrena II, bi beso luzedun etorkizun handiko atzelaria. Pilota oso egoki luzatzen du eta gero eta gutxiago galdu. Partida hau ere oso irekia ageri da nahiz eta lehenak faborito ageri diren.

Bi partida hauetako irabazleek abenduaren 23an jokatu dute finalerdietako partida. Pasa den abenduaren 5ean jokatu ziren beste final laurdeneko partidak.

Batetik, Urbieta eta Aranguren sailkatu ziren Alberdi eta Gorrotxategi mendean hartuta eta bestetik Salaberria eta Garmendia pasa ziren 23ko azken aurreneko fasera Urmeneta eta Urruzolari irabazita. Hala, abenduaren 23ko lehen partida Urbieta-Aranguren eta Salaberria-Garmendia izango da eta bigarrena asteburu honetan erabakiko da.

Ostiralean, aukera paregabea pilotaz gozatzeko eta doan.

Urtea lehenengo postuan!



Aulkitik

Saioa Zubillaga
Tolosa CF, Euskal Liga

Aste honetan ere larunbat arratsaldean genuen partida. Hortaz, ohiturak baztertu gabe, musika pixka batekin alaitu genuen beroketa aurreko tartetxoak. Betiko urduritasuna eta irabazteko gogoa azalean genituela ginen aldagelan.

Bigarren itzuliari hasiera eman genion Hernani aurkari genduela. Nahiz eta hernaniarrak sailkapenean ez egon lehen postuetan, lan gogorra eman ohi duen taldea da eta oraingo honetan ere horrela izan zen. Erabateko arreta jarri behar izan genuen jokoan, eskuratu nahi genituen hiru puntuak eskutik alde ez zezaten.

Partidan aurrea hartu genuen Maddiren golarekin, baina tamalez 1-0 k ez zuen luze iraun. Baloia gure atean sartzea lortu baitzuten lehenengo zatia amaitu baino lehen. Atsedanak, garaipena eskuratzeko gose handiagorekin ateratzeko balio izan zigun eta ala demostratu genuen gai ginenaz bigarren zatian, markagailua gure alde jarritz partidaren amaiera arte. Oraingo honetan Ainhoaren golarekin.

Hotza eta euria alde batera utzi zuten hainbat senide, lagun eta beste kideek urdinak animatzeko eta futbolaz gozatzeko asmoz. Haiei eskerrak gudan duten konfiantzagatik, gure arteko animoez gain, beraienak ere inoiz ez baitaude soberan.

Esan genezake urtea ezin hobe amaitu genduela. Zuriñek argi eta ozen esan zuen bezala: «neguko txapeldunak» gara. Orain arte Tolosako nesken lehen taldean lortu ez den emaitza denez, oso harro egoteko arrazoia dugu. Beraz, hemendik aurrera pausoz pauso joan beharko dugu postu hori mantendu ahal izateko.



OSTEGUNA, 2017KO ABENDUAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezket, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Aspertzeko tarterik ez, Alegian

Eguberriak ate joka diren honetan, Alegiako Udalak herriko eragileekin batera, urtarilaren 5a bitarteko egitaraua prestatu du, tartean kultur eta kirol jarduerak izango dira

Erredakzioa Alegia

Alegiako Kultura batzordeak Gabonak «zaku bete opari» prestatu dituela dio harro. Herritar guztiak gogoan harturik, norbanako bakoitzak berarentzat moduko jarduera aukeratzea besterik ez du, gabon garaia etxean bertan gozatu ahal izateko.

Horrela abenduaren 15ean hasi eta urtarilaren 5a bitartean luzatuko da Alegiako gabonetako eskaintza. Aralar institutuak irekiko du ostiralean ekimen zerrenda merkatu txikiarekin, 18:00etatik aurrera plazan kokatuko dira gazteak, saltzeko asmotan.

Musikak zehaztuko ditu hurrengo hitzorduak. Izan ere, Loatzo musika eskolaren kontzertua abenduaren 20an izango da eta talde berdinak emanaldia eskainiko du, hilaren 22an. Gainera, Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek hurrengo kontzertua abenduaren 23rako hitzemanda dute.

Gaztexoenen ilusioa pizteko eguna izango da hilaren 24a, ohitura den bezala, Olentzero eta Mari Domingi irisiko baitira herrira.

Hala ere, egitarauak luze joko du urtarilaren 5a bitarte, hein handi batean, Gaztelekuaren proposamenari esker.

GABONAK 2017

Abenduak 15, ostirala

18:00. Merkatu Txikia Aralar institutuak antolatuta, plazan.

Abenduak 20, asteazkena

19:30. Loatzo musika eskolako bandaren kontzertua.

Abenduak 22, ostirala

18:30. Loatzo musika eskolaren eguberrikako kontzertua Elizpe zinema aretoan.

Abenduak 23, larunbata

19:45. Txintxarri Txiki eta Txintxarri Abesbatzen kontzertua, elizan.

Abenduak 24, igandea

11:00. San Juan eskolako ikasleak abesten kaleetan zehar.
18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. Eskola aurrean itxarongo dituzte. Txintxarri Abesbatza kantari ibiliko da.

Abenduak 25, astelehena

11:15. Txintxarri Abesbatza kantuan meza nagusian.

Abenduak 26, asteartea

10:00-11:30. 6-12 urteko haurrekin ekintzak. Ludotekan.
11:30-13:00. 12-17 urteko gazteekin ekintzak. Gaztelekuan.

Abenduak 27, asteazkena

10:00-11:30. 6-12 urteko haurrekin ekintzak. Ludotekan.
11:30-13:00. 12-17 urteko gazteekin ekintzak. Gaztelekuan.
Gabonetako pilota topaketak Elorri pilotalekuan.
15:30. Argazkia.
16:00. Partidak.

Abenduak 28, osteguna

Gabonetako pilota topaketak Elorri pilotalekuan.

Abenduak 31, igandea

16:00. VIII. San Silvestre Krosa.
19:00. Euskal preso eta iheslariak etxera lelopean manifestazioa.

Urtarrilak 1, astelehena

11:15. Txintxarri Abesbatza kantuan meza nagusian.
12:15. Udal hautetsiek mandarinak eta intxaurrak banatuko dituzte plazan.

Urtarrilak 2 eta 4

Gabonetako eskalada.
Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 5, ostirala

18:30. Errege kabalgata Orendainetik abiatuta.

OSTEGUNA 14

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Seve Iglesiasen erakusketa. Paisaia, erretratuak eta pintura abstraktua. Asteleheneetik ostiralera: 18:00-20:30. Larunbatetan: 10:30-13:00. Gurea antzokian.

Alegia. Pintxo-pote berezia. Erakusketa: kartel zaharrak, argazkiak, pintxoak,... 18:30ean.

Altzo. XXI. Olentzerotan Jakin Minnez. Anizeto Olano Migel Altzo: *Euskal eskola, gerrak zapuztutako ametsa*. Hizlaria: Onintza Odriozola irizar. Ikasketa aroan mamitu zuen Onintzak, *Hizkuntza eta Hezkuntza: Migel Altzo eta gerraurreko hezkuntza elebidunlana* (2003).

19:00etan, udaletxeko ekintza eta batzar aretoan.

Ibarra. Ibarratik Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikia abenduaren 10etik 17ra irekiko dute eta jasotzen duten dirua Ekuador, Honduras eta Indian abian dituzten proiektuetara bideratuko dute. (Gauzak eramateko epea, hilak 9: 17:00etatik 20:30ak arte jasotzen dituzte plazan bertan dagoen parrotziako lokalean).

Tolosa. *La región salvaje* filma, 19:15 eta 21:45. Leidorren.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza. Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzearekin eguraldia, helduekin solasaldia eta Irene Arin *Kale Kantoitik*, Idoia Apaolaza psikopedagogoa.

11:00-12:00. Entzuteko Jaioak.

Musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea. Arrosa Sarearen magazina.

18:00-20:00. Goizeko saioek utzitako onena.

21:00. Ataria iluna.

28 KANALA

12:30. Elkarriketa Xabier Zabala musikagilea.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Ikusi Irratia.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

+ FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.

Lejeune Maset, L.

Euskal Herria, 24.

Telefonoa: 943 673274.

Gaukkoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.

Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

GAUR



11° / 8°

BIHAR



13° / 6°

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

